

Erbiak burutxoa atera du

Oihane Larretxea
de la Granja

Besoetatik askatzen hasi zara, urrats ttipiak, biziak eta baldarrak. Beldurrez eta tentuz batzuetan, ausardia itsuz bestetan. Beti irri urduriz. Gordelekutik atera du burutxoa erbiak. Eta ez du atzera egin nahi. Zapatatxoan gomazko zolaren azpian sentitu du, lehen aldiz, munduaren larruazala.

Bidaia luzearen lehen pausoak, desku-brimenduarenak, inozentzia eta ontasunarenak. Noiz edo noiz besoetara, «etxera» itzuliko da, baina dagoeneko abiatua du bere bide propioa. Eta hala behar du. Munduaren larruazala oraindik xamurra zaio.

Begiez ikasi eta ikusi, eta 80 zentimetro eskaseko perspektiba horretatik logikak eraiki, arrazoiak ulertu eta erantzunak bilatu. Eta galdetu. «Zergatik?». Jarri zalantzan susmagarri zaizuna, aldatu gustuko ez duzuna, kendu bidetik kalte egiten dizuna. Jarrerak eramango zaitu, urratsez urrats, aurrerantz.

Eta ez konformatu. Inoiz ez konformatu aldezturik eginak iritsiko zaizkizun arauarekin eta ereduarekin. Ez konformatu emanda datorrenarekin, ez eta inposatutako eskemekin ere. Defendatu eta borrokatu libre sentitzeko-izateko modua. Zurea. Horrek utziko dizu gaue-ro lasai lo egiten.

Burua pentsatzeko eta bihotza sentitzeko; batzuetan bihotzaz arrazoitu eta buruaz sentitu. Oin bat lurrean eta beste bat ilargian izatearen desorekak ekartzen du, maiz, oreka.

Defendatu maite duzuna eta izan dadila zure burua gehien estimatzen duzun hori. Maitasun horrek ahaldunduko zaitu. Maitatu askatasuna eta askatasunaz maitatu, taburik gabe, betorik gabe, konplexurik gabe.

Hegan egiten duzula sinistu, baina ulertu batzuetan ezingo duzula. Eta ez ahaztu, bihotzatxo, lehen urrats ttipi eta narras haietan zegoen inozentzia eta ontasuna. Hori ere bagara. •

«Coronacircus»

Koldo Sagasti

Dibertimendu berri bat iritsi da gure artean luzerako geratzeko. Beste hizpiderik ez dago lantokiko edota eskolako patioko so-lasaldietan. Asterixen komikietako per-tsonaiaren izena duen izurriteak atzean utzi ditu alderdi hegemonikoarentzat ezerosoak izan zitezkeen beste afera batzuk. Iritzi publikoaren arreta desbide-ratu du, noiz eta hauteskunde kanpai-naurrean. Izan ere, gripea madarikazio jainkotiarra da, nonbait, gizakien boron-dateari ihes egiten dion zigor zerutiarra. Berez, ez luke zertan zipriztindu gober-nuko gidaritza orbangabea.

Zaldibarko hondamendiaz aginteko al-derdiak egin duen kudeaketa eskasa al-

bistegietako azken interesgunera zokora-tu dute, bitxikerien eta kirolen artean. De Miguelena bezalako ustelkeria auziek, zer esanik ez, iragan urruneko kontuak diru-dite. Eta Osakidetzako oposizioetako iru-zur sistemikoak. Eskandaluzko beste ka-su batzuk, berriz, isilarazi egin dituzte, erabat; hala nola, Bilboko portuan aldi-ro ontziratzen dituzten Saudi Arabiarako ar-mak, edota EAEko gobernuaren diru pu-blikoaren partaidetzaz Palestinako oku-paziorako azpiegiturak eraikiko dituen CAF enpresarena.

Baina, kontrako kalkulua egin bazu-ten ere, zorigaitzoko birusak ere lotsariak bistan utzi ditu ustezko kudeatzaile pare-gabeak; ez mundu mailako pandemia ba-

ten errua erkidegoko gobernuari lepora-tu dakiokelako, baizik eta izurriak age-rian utzi duelako osasun sistema publi-koa urtez urte azpikontratatzeko politika pribatizatzailea. Denok pairatu dugu noizbait osasun zerbitzu publikoetako baliabideen murrizketa, hilabeteetako itxaron zerrendak, mediku falta osasun zentroetan, ordutako itxaronaldiak la-rrialdi zerbitzuetan... eta azkenean iritsi da birusa, eta eremu ongarriztatua aurki-tu du: osasun sistema publiko deusezta-tu bat, alderdi hegemonikoaren kudea-tzaileei esker. Orain gestore horiek agintetik botatzeko aukera dugu... edo, bestela, Jainkoak eta lege zaharrek konfe-satuta harrapa gaitzatela. •